

Parte-hartze bidezko aurrekontua, 2026

Zer da parte-hartze bidezko aurrekontua?

Prozesu ireki bat da.

Prozesu horrek Bilboko bizilagunei aukera ematen die proposamenak egiteko eta Bilboko Udalaren aurrekontuaren zati bat erabiltzeko moduari buruzko ideiak emateko.

Bizilagunen batek ideiaren bat badu, hau da unea.

Aurkezten diren proposamenek lehenengo azterketa prozesua pasako dute eta azkenik, aukeratutako proiektuak herritarrek bozkatu ahal izango dituzte.

Bilboko Udalak 2 milioi € zuzenduko ditu boto kopuru handiena duten proiektuak gauzatzeko.

2016tik egiten da parte-hartze bidezko aurrekontuen prozesua. Hamargarren edizioa da aurtengoa.

Nork har dezake parte?

Proposamenak aurkez dezake:

1. Bilbon erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak.
2. Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzako Erakundearen Erregistroan izena emana duten erakundeak.

3. Legez eratutako edozein erakundek. Adibidez, elkarteak, fundazioak, sindikatuak, elkargo profesionalak eta zuzenbide publikoko korporazioak.

4. Bilboko ikastetxeek.

Eskaera erakunde edo ikastetxe baten ordezkari gisa aurkezten duen pertsonak Bilbon erroldatuta egon behar du eta 16 urtetik gorakoa izan behar du.

Bozketan parte har dezake:

Bilbon erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak.

Zer motatako proposamenak aurkez daitezke?

Bilboko Udalak eskaintzen dituen eremuren eta programaren batekin zerikusia duten proposamenak, hirirako edo barrutiren baterako interesgarriak direnak.

Bereziki baloratuko dira honako gai hauekin lotutako proposamenak:

- Kultura
- Gazteria eta Kirola
- Euskara, Herritarren Arreta eta Partaidetza, 2030 Agenda eta Nazioarteko Gaiak



Bilbao



- Berdintasuna eta Jaiak
- Mugikortasuna eta Jasangarritasuna
- Hiri Berroneratzea
- Osasuna eta Kontsumoa
- Etxebizitza
- Hezkuntza
- Gizarte Ekintza
- Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasuna
- Hiri Plangintza, Proiektu Estrategikoak eta Espazio Publikoa
- Obra Publikoak eta Zerbitzuak
- Segurtasuna
- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza, Turismoa eta Enplegua

Hobe da proposamena barrutiak hobetzeko obrekin lotuta ez egotea, alderdi horrek prozesu eta parte-hartze bidezko aurrekontu propioa baititu.

Gainera, proposamenetan ezin da zehaztu pertsona, erakunde edo talde jakin batek egingo dituela.

Proposamen horiek udal-aurrekontuaren proiektuan xertatzen badira, dagokion udal-sailak kudeatuko ditu.

Zer motatako proposamenak ezin dira aurkeztu?

Ezin dira aurkeztu honako gai hauekin lotutako proposamenak:

- Pertsonak kontratatzeako gastuak.
- Lanak edo zerbitzuak egiteko enpresak edo pertsonak kontratatzeako proposamenak.
- Familientzako, irabazi asmorik gabeko erakundetarako, fundazioetarako eta enpresa

pribatuetarako laguntzak eta dirulaguntzak.

- Bekak, sariak edo bestelako laguntzak.
- Diru-sarrera publikoei lotutako erabakiak.

Nola aurkeztu behar dira proposamenak?

Udalaren webguneko **parte-hartze bidezko aurrekontuen** atalean dagoen inprimakia betez (www.bilbao.eus).

Eskaera-inprimaki bakoitzean proposamen bakarra egin daiteke.

Inprimaki berean ezin da proposamen bat baino gehiago egin. Proposamen bat baino gehiago badago, baliteke horiek ez onartzea.

Eskaera-inprimaki bakoitzean informazio hau agertu behar da:

- Ordezkatzen den pertsonaren edo erakundearen datuak.
- Proposamenaren izena edo izenburua. Informazio hori hitzez hitz argitaratuko da udal webgunean.
- Proposamenaren deskribapen laburra. Deskribapen sinple bat egin behar da, proposamena zertan datzan azalduta. Informazio hori hitzez hitz argitaratuko da udal webgunean.
- Proposamenak gutxi gorabehera zenbat diru balio duen. Datu hau ez da nahitaezkoa.

Dokumentuak erants daitezke, beharrezkotzat jotzen bada.



Bilbao



Baloratuko badituzte, zer ezaugarri bete behar dituzte proposamenek?

Udaleko teknikariek honako alderdi hauek hartuko dituzte kontuan proposamen batek balio duen ala ez erabakitzeko:

Udalaren eskumenekoa da

Proposamena garatzeko egin beharreko ekintzak eta tramiteak Udalaren esku daude, ez beste erakunde batzuen esku.

Legezkoa da

Ezin da egon proposamena burutzea debekatzen duen legerik edo araurik. Gainera, proposamenaren edukiak ezin du ongizate komunaren aurka egin eta ezin ditu pertsonak edo kolektiboak diskriminatu.

Interes orokorrekoa da

Proposamenak hiri osoaren, barruti baten edo kolektibo zabal baten onura izan behar du helburu.

Egin daiteke

Ez dago proposamena gauatzeko eragozpen teknikorik.

Proposamenak zenbat diru balio duen

Proposamen bakoitzerako **300.000 euro** eskatu ahal dira gehienez.

Proposamena gauatzeko gehieneko epea

Proposamenek 2026an. gauatzeko modukoa izan behar dute.

Zer fase dituzte proposamenek?

1. Proposamenak jasotzea

2025eko maiatzaren 8tik 22ra.

Herritarrek, erakundeek eta ikastetxeek udalaren webgunearen bidez aurkezten dituzten proposamen guztiak jasotzen dira.

Gainera, Haurren eta Nerabeen Udal Kontseiluaren proposamenak jasoko dira.

2. Jasotako proposamenak webgunean argitaratzea

2025eko ekainaren 26an.

Fase honetan, eduki iraingarria eta diskriminatzailea duten proposamenak kentzen dira, bai eta pertsona batek behin baino gehiagotan bidali dituelako errepikatuta dauden proposamenak ere.

3. Proposamenak aztertzea eta hautatzea

2025eko ekainetik irailera.

Proposamen guztiak aztertzen dira, eta irizpide guztiak betetzen dituzten proposamen egingarriak aukeratzen dira. Zerrenda luzeegia izan ez dadin, interes orokorra, udal-estrategia eta egingarritasun-irizpideak ere hartzen dira kontuan.

Fase honetan aukeratzen dira gero herritarrek hautatu ahal izango dituzten proiektuak. Antzeko proposamenak badaude, proiektu berean biltzen dira.

4. Proiektuak argitaratzea eta herritarrek bozkatzea.

2025eko irailaren 22tik urriaren 3ra.

Proiektuak Udalaren webgunean argitaratzen dira, banan-banako informazio honekin:

- Proiektuaren deskribapena
- Aurrekontua
- Zein barrutitan egingo den.

Argi eta garbi aitortuko dira fase honetara iristen diren Haurren eta Nerabeen Udal Kontseiluaren proiektuak.

Bilbon erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonak gehien gustatzen zaizkien proiektuak bozkatu ahal izango dituzte.

Horretarako, inprimaki sinple bat bete beharko dute.

Inprimaki hori hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren webgunean, parte-hartze bidezko aurrekontuen atalean.
- Bilbaoclick makinetan (udaltegietan).

Pertsona bakoitzak inprimaki bakarra bete ahal izango du.

Inprimakian zenbait proiektu bozkatu ahal izango dira, prozesurako zehaztutako gehieneko zenbatekora iritsi arte (2M€).

5. Herritarrek bozkatutako proiektuak 2026ko Aurrekontuen Proiektuan sartzea

Herritarrek bozkatutako proiektuak jasoko dira, prozesu horretara bideratutako gehieneko zenbatekora iritsi arte.

Proiektu horiek **2026rako Udal Aurrekontuaren Proiektuan** sartuko dira.

Gobernu Batzarrak hautatutako proiektuak onartuko ditu, eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

Hautatu ez diren proiektuak ere argitaratuko dira, arrazoiak azalduz.

Hautatutako proiektuak gauzatu aurretik, kontrol eta azterlan gehiago egingo dira, gainerako gaiekin egiten den bezala.

Kontrol eta azterlan horiek beharrezkoak dira lehenago detektatu ez den proiektuak gauzatu ezin izateko arrazoiaren bat egongo balitz ere.

Halakorik gertatzen bada, informazio hori argitaratu egingo da.